

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### PAGOETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Pagoetako Administrazio Batzarraren jabetzako ondasun higiezin bat (etxebizitza eta orubea) alokatzea**

Kontzeju irekiaren 2022ko azaroaren 11ko erabakiarekin bat etorriz, iragarki honen bidez, «Las Escuelas» izeneko etxebizitza eta orubea errentan emateko lehiaketarako deialdia egiten da. Higiezin hori (katastro erreferentzia: 1 poligonoko 674 lurzatia) kontzeju honen jabetzako da. Ondasun higiezinaren inbentarioan ondare ondasun kalifikatuta dago, Pagoeta hiribideko 26. zenbakian (Pagoeta), eta etxebizitza gisa erabili nahi da, honako datu hauen arabera:

1. Erakunde adjudikatzailerak: Pagoetako Administrazio Batzarra.

a) Espedientea izapidetuko duen bulegoa: administrazio batzarra.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

1) Bulegoa: udaletxea.

2) Helbidea: Frai Jacinto Martínez plaza, 2.

3) Herria eta posta kodea: Urizaharra. 01212.

4) Telefonoa: 638 51 05 38.

5) Helbide elektronikoa: [payuetajunta@gmail.com](mailto:payuetajunta@gmail.com).

6) Kontratatzailearen profilaren interneteko helbidea: [www.penacerrada-urizaharra.com](http://www.penacerrada-urizaharra.com) edo [www.contratacion.euskadi.eus](http://www.contratacion.euskadi.eus).

2. Kontratuaren xedea: Pagoetako Administrazio Batzarraren jabetzako etxebizitza errentan ematea.

a) Etxebizitza dagoeneko tokia: Pagoeta.

b) Helbidea: Avenida kalea. Pagoeta, 26.

c) Herria eta posta kodea: Pagoeta. 01211.

d) Errentamendu epea: zazpi urte.

3. Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: lehiaketa publikoa.

c) Esleipen irizpideak: ekonomia eskaintzarik onena, gehien eskaintzen duena, zenbait esleipen irizpiderekin:

1) Preziorik onena: 80 puntu.

2) Errentan hartzen den etxebizitzan biziko den kide gehien duen bizikidetzaren unitateari: 5 puntu.

3) Ohiko etxebizitza izango duenari: 10 puntu.

4) Urizaharrean erroldatuta dagoela egiaztatzen duenari: 5 puntu.

4. Alokatzearen zenbatekoa:

a) Alokatzearen zenbatekoa: 755,72 euro hilean.

5. Fidantzak:

a) Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

b) Behin betikoa: bi hilabeteko alokairua.

6. Eskaintzak aurkeztea: Urizaharreko Udalaren bulegoetan -Fray Jacinto Martinez kalea, 2. zenbakia, Urizaharra- 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, hamabost eguneko epean, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.

7. Agiriak aztertzea: Urizaharreko udal bulegoetan, aurreko atalean eta kontratatzailearen profilean ([www.penacerrada-urizaharra.eus](http://www.penacerrada-urizaharra.eus);) edo [www.contratacion.euskadi.eus](http://www.contratacion.euskadi.eus) helbidean zehaztutako ordutegian, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaintza eredia: onetsitako administrazio klausulen agiriari adierazitakoak.

Deialdiari buruzko argibideak edo agiriak lortzeko kontratatzailearen profila: [www.penacerrada-urizaharra.com](http://www.penacerrada-urizaharra.com) edo [www.contratacion.euskadi.eus](http://www.contratacion.euskadi.eus).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Pagoeta, 2022ko azaroaren 14a

*Administrazio batzarreko lehendakaria*

*JOSÉ ANGEL RUIZ DE SAMANIEGO RAMÍREZ DE LA PISCINA*